

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

## Libra gaitzatela epelkeriatik

**I**ruñean –1982ko udan– ezagutu nuen, UEUk antolatzen zituen jardunaldietan. Alfabetatze teknikoko ikastaroa izan genuen elkargunea. Hura irakasle zen, izen handiko ingeniaria, ordurako. Ni, ikasle soila.

Pare bat hitz egin orduko, Elhuyar-en parte hartzeko gonbitea luzatu zidan. Eta, nola diren gauzak, orduan ez nuen imaginatu ere egin, hurrengo hamahiru urteak inondik ezagutzen ez nuen talde hartan emango nituenik. Gogoko zuen *Elhuyar* aldizkarian idaztea. Gogoko zuen, bereziki, fisikako gaiak era ulergarrian ematea.

Gerora, maiz joan ginen harengana Bergarara, UNEDeko egoitzara, UEUn adar tekniko-teknologikoa antolatzeko xedez. Bilerak bukatuta, taberna izaten genuen elkarri agurra emateko tokia. Oliba-platertxo zerbitu orduko, oliba bat hartu eta lurrera botatzen zuen beti, eta “orain ez duzue den-denak ez jateko aitzakiarik” eranstean.

Beti jendez inguratuta, herri askotako koa-driletan ezaguna, saltsa guztietan parte hartzen zuena, eta, halaber, astelehenetan fisikari buruzko artikulua zintzo-zintzo eta atzerape-nik gabe entregatzen zuena. Horrelakoxea zen Luis Bandres. Eta horixe da, haren gainean aipa dezakedan biografia zatia.

Baina bazuen besterik ere. Bazuen urrunago-koa zaidan beste aurpegi bat ere. Politikari izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundian diputatu, Eusko Jaurlaritzan sailburu.



DANI BLANCO

Azken hiru urteetan, Irungo ogasuneko afera itsusian nahasita ikusi genuen bere izena. Heriotzaren ostean, nigandik urrutien dauden alderdiak nabarmendu zaizkio argitara emandako biografia gehienetan. Edo, beste modu batera esanda, nik ezagutu nuen Luis Bandres, pertsona parrandazale eta langile hura, denetarako denbora ateratzen zuena eta hain justu horregatik miretsi nuena, ez da inon islatu.

Mikel Laboa hil zenean, bati baino gehiagori entzun nion lamentua: “Bizirik zegoela egin behar zitzaion omenaldia”. Luisekin beste horrenbeste gertatu behar zuela erantsiko nuke. Kasu honetan ere, heriotzak irabazi digu partida. Eta aitortu beharra daukat, inork ez dugu mugimendu azkarrak egiteko ahalmenik izan. Ez nik, ez haren lankide izandakotik inork. Ez gara gai izan edo, gaizki pentsatzen hasita, ez dugu nahi izan. Akaso, ezagutzen ez dudun biografia hori dela kausa. Eta hala bada, madarikatzekoa iruditzen zait. Zipriztinen beldur direnekiko sentitzen dudun zartadurara gero eta sakonagoa da. Ez ditut pertsona perfektuak gogoko. Nekagarriak zaizkit, beti tonu berean, beti korrektu.

Faltan botatzen ditut imperfektuak, inizatiba hartzen dutelako erratzen direnak, parrandaren biharamunean ere, buruko minez bada ere, epelak entzuteko bada ere, zintzo-zintzo behar den tokian egongo direnak.

Agurrik ez, Luis. ■



Faltan botatzen  
ditut imperfektuak,  
inizatiba hartzen  
dutelako erratzen  
direnak (...)

Agurrik ez, Luis



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Profesionalak, herriaren zerbitzariak, bote-rea ongia hedatzeko

behar izaten duten horiek, ez dira betiko. Biziaren erdia besteei emanak igaro ondoren, azken laurdena baliatu behar izaten dute beren buruak zaintzeko eta bide batez bere inguru hurbileko ondorengoak hornitzeko, seme-alabek eta bilobek beren herriarekiko eskuzabaltasuna ordaindu beharrik izan ez dezaten. Ulergarria da, politikak ez du inor aberasten. Aste honetan bertan jakin dugu Javier Solana espainol sozialista entzutetsua Acciona talde industrial erraldoiak kontratatatu duela aholkulari lanetarako, bere gara-

## Politikari

pen internazionala azkartzeko bereziki. Eraikuntza, logistika eta finantza eremutan jada indartsu den enpresa taldeak Solana bezalako aditu baten beharra du kontratu berriak lor ditzan. Ez du eskusiban kontratatzerik izan, Solanak bestelako aholkularitzak eta ardura profesionalak bai baititu onartuak, beti ere mundu bizigarriago baten xerka bere ideologia sozialistak hala aginduta. Ez da momentu txarra negoziotarako, tsunamiek, lurrikarek eta gainerakoek solidaritatea behar izaten dute desegindakoa berreraikitzeke. Acciona behar dute, eta honek Solana bezalako jubilatutak, biziaren erdia ongia banatzeari emanak. ■